


**SEXU-ERASOEN ETA GENERO-INDARKERIAREN  
BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA  
HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II.  
PROTOKOLOA**

**Leioako Udala**



**BILDU DIRA:**

***Mari Carmen Urbieta, Leioako alkate andrea***

***Javier Aldekoa - Erandioko Ertzaintzako burua***

***M<sup>re</sup> Luz Marqués Gonzalez, Osakidetzako Uribe Kosta eskualdeko zuzendari kudeatzailea***

## ZIOEN AZALPENA:

Forma desberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu eta, horrenbestez, **giza eskubideen** urraketa nabarmena da.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren edozein ziklotan jasaten duten **egiturazko desberdintasun-egoeran ditu** erroak. Desberdintasun horri, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, esparru publikoan zein pribatuan emakumeak gizonen azpitik jarritz.

Nazioarteko, estatu-mailako eta autonomia barruko hainbat erakundeek modu zabalean aztertu dute emakumeen aurkako indarkeria. Bat datoz indarkeria horren erroetan eta ondorioetan, nahiz eta modu desberdinetan izendatzen duten. Emakumeen **gizarte maila, familia-estatusa, adina, erlijioa eta nazionalitatea** edozein izanik ere indarkeria horrek emakumeengan eragina duela ondorioztatu dute guztiek.

Emakumeen aurkako indarkeriak adierazpen desberdinak ditu eta herrialdearen arabera adierazpen batzuk besteak baino nabariagoak dira (gizonak **emakume bikotekidearen edo bikotekide ohiaren** aurka erabiltzen duen adierazpena da nabariena). Emakume baten eta gizon baten arteko lotura afektiboan hanpadura jartzen duen tratu txar mota horrek, egungoa zein iraganekoa, bizikidetzarekin zein bizikidetzarik gabekoa, genero-indarkeriaren delitu gisa jaso da legerian.

Protokolo honek sexu-erasoen kasuei arreta emateko erakundeen arteko jarduketak koordinatuko ditu, nahiz eta indarrean dagoen Zigor Kodeak jasotzen dituen sexu-askatasunaren aurkako delituen artean genero-indarkeriaren delituarekin alderatuta horien intzidentzia-indizea txikiagoa den.

**Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak** ere problematika horren biktima dira, hortaz, beharrezkoa da arazoari bere osotasunean heltzea.

Etorkizunean protokolo honen jarduera-eremua zabaltzeko aukerari kalterik egin gabe, orain sinatzen dena **genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen** kasuei aurre egiteko erakundeen arteko ekintzen koordinazioaz arduratuko da.

## HONAKO HAU ERABAKI DA:

**LEHENENGOA:** Koordinaziorako Tokiko Protokolo bat sinatzea, Leioa udalerrian bizi diren sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta hobetzeko.

**BIGARRENA:** II. Protokoloaren edukia hedatzea koordinazio eraginkor bat lortzeko beharrezkoak diren instantzien artean, sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko eta horien antzematea errazteko.

**HIRUGARRENA:** Protokoloaren Mahaiak hasitako jarduerari jarraipena ematea. Protokoloaren Mahaiak protokolo horren egikaritzearen erantzukizuna eta jarraipena egiteko ardura eta izango du.

**LAUGARRENA:** Emakumeen aurkako indarkeria matxistari modu estrukturalen aurre egitea: iragarkien, irudien eta hizkuntzaren erabilera zainduz eta protokoloa sinatzen duten erakundeen politketan genero-rolak eta estereotipoak ez erreproduzitzeko lan eginez.

**BOSGARRENA:** Emakumeen aurkako indarkeria matxista erantzukizun kolektiboko gizarte-egitatzat hartzea eta ez jotzea esku-hartzerik behar ez duen kontu pribatutzat, eta ikuspegi hori herritarren artean modu aktiboan zabaltzea.

**SEIGARRENA:** Protokoloa sinatu duten erakundeen jarduketa bideratzea, I. atalean (Sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei laguntzeko eta arreta emateko printzipio zuzentzaileak) jasotako jarduketa-printzipioen arabera.

**ZAZPIGARRENA:** Protokoloa sinatu duten erakundeen jarduketa burutu eta koordinatzea, protokolo honen II. atalean garatutako prozeduren arabera.

## I) SEXU-ERASOEN ETA GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ETA ARRETA EMATEKO PRINTZIO ZUZENTZAILEAK

- **Lehentasuna.** Sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lehentasunez emango zaie arreta, kasu bakoitzean esku-hartzearen larritasuna baloraturaz, ahal bezain azkar erantzuteko.
- **Arreta osoa eta pertsonalizatua.** Protokolo honetan aipatutako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien menpekoak diren pertsonari ematen zaien arretak indarkeria-egoera bakoitzaren ondorioz sortzen diren beharrak barne hartuko ditu eta, bai eta bizi duten egoeran duten pertzepzio maila desberdinak ere. Horretarako, kasu bakoitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak jarriko zaizkie eskura.
- **Gertutasuna.** Emakumeei hurbileko arreta ematen saiatuko da; izan ere hurbiltasun horrek (geografikoa, emozionala eta kasuaren ezagutzarena) esku-hartze hobea dakar. Kasuaren jarraipena, koordinazioa eta eztabaida errazten du; halaber, erakundeen laguntzan konfiantza sortzen da. Zerbitzu desberdinetako langileak emakumea dagoen tokira joan ahal izango dira, esku-hartzerako baldintzak uneoro erraztuz. Segurtasun-kidegoek polizia-bereizgarririk gabe egin beharko dituzte lekualdaketak, hala egitea posible den heinean, bai pertsonalak bai ibilgailuen bitartez, biktimen estigmatizazioa ekiditeko.
- **Berdintasuna.** Biktima guztiei arreta eskaintzen zaiela bermatu beharko da, honako ezaugarriengatik inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu orientazioa, adina, sinesmena edo ideologia, gutxiengo etnikoa, nazioa edo hizkuntza, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala, edota beste edozein baldintza pertsonal edo sozial. Era berean, beharrezko neurriak hartuko dira beren egoera pertsonal eta sozialaren ondorioz laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, beren egoera administratiboa edozein dela ere.
- **Prebentzioa.** Jasotako jarraibide guztiak aplikatuko dira biktimen aurkako indarkeria-egoerarik errepikatu ez dadin. Biktimatzat joko dira bai emakumeak bai beren kargu dauden umeak eta nerabeak edo beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduak.

- **Adingabeen interesen defentsa.** II. jarduera-protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek beren kargu dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Edonola ere, umeen eta nerabeen interes gorena kontuan hartu beharko da, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak xedatzen duenaren arabera.
- **Ahalduntzea eta normalizazioa.** Indarkeria jasaten duten emakumeak ez dira subjektu pasiboak, beren istorio partikularrean baliatu dituzten hainbat biziraute-estrategia eta -gaitasun garatu dituzte. Indargune horiek kontuan hartzea garrantzitsua da, kasu bakoitzari egokitutako esku-hartzearen artikulazio aproposa egin dadin, indarkeriaren biktima diren emakumeek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten.
- **Eraginkortasuna eta arintasuna.** Protokolo honek biltzen dituen jarraibideak aplikatzeko, artikulazio eraginkorra eta arina bermatu beharko da, horrelako egoeretan ohikoa izaten den urgentziak eskatzen duen berehalakotasunarekin jokatzeko.
- **Ahalik eta biktimizaziorik txikiena.** Protokolo honetan aipatzen den indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahal den neurrian saihestuko da, hortaz, profesionalen eta erakundeen esku-hartzearen ondorioz biktimek jasaten dituzten eragozpenak ahal bezain beste murriztuko dira. Emakumeei arreta emateko koordinatu beharko dira erakundeak; biktimek ez dute ardura hori izan behar.
- **Segurtasuna eta babesa.** Jarduera profesionaletik eratorritako betebeharrak juridikoak oinarritzko konpromiso etikoak dira. Beraz, indarkeria egoerak bizi dituzten edo bizi izan dituzten emakumeentzako babes- eta segurtasun-printzipioa gailentzeko esku-hartzeak bideratuko dira.

## PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA

Hainbat gizarte-eragilek hartu dute parte emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko eztabaida terminologikoan. Emakumeen aurkako indarkeriak hartzen dituen forma eta adierazpen desberdinak hobeto ulertzeko, protokolo honetan terminologia hau erabiliko da:

**Indarkeria matxista / Emakumeen aurkako indarkeria:** Gizonen eta emakumeen arteko gizarte-hierarkian oinarritutako kontrol-adierazpen eta boterearen erabilpen bortitz guztiak dira, bere forma guztietan, hau da, "maskulinoa" "femeninoa"ren gainetik dagoenaren ustean oinarritzen diren jokabide bortitz guztiak.

- **Indarkeria fisikoa:** apropos egiten den eta/edo biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jartzen edo kaltetzen duen ekintza. Erasotzeko erabilitako arma objektu bat, arma bat, substantzia arriskutsuak edo erasotzailearen beraren gorputza izan daitezke, eta kalteak txikiak zein handiak izan daitezke. Tratu txar fisikoa dagoenean tratu txar psikologikoa ere badago.
- **Indarkeria psikologikoa:** apropos egiten den eta/edo emakumeen segurtasun psikologikoa kaltetzen edo arriskuan jartzen duen ekintza. Hainbat forma ditu: irainak, umiliazioa, mehatxuak, eta abar; batzuetan sotiltasunez adierazten dira. Jokabide baten forma har dezake (jazarpen-jokaera, esaterako) edo hitzez adieraz daiteke. Kasu horietan, garrantzia hartzen dute bai esaten den horrek bai esateko moduak.
- **Indarkeria ekonomikoa:** baliabide materialak eta ekonomikoak kontrolatuz, emakumearen bizitzaren alderdien gaineko erabakiak, jokabideak eta ekintzak kontrolatzea helburu duten egintzak eta ez-egiteak dira. Consisten en impedir el acceso a la información o el manejo del dinero o de otros bienes económicos. Tratu txar ekonomikoa dagoenean tratu txar psikologikoa ere badago.
- **Sexu-indarkeria:** emakume bat sexu-harreman behartuak izatera derrigortzen duten ekintzak dira (larderiaz, indarkeriaz –xantaia edo mehatxua– edo borondate pertsonala

bertan behera uzten edo mugatzen duen beste edozein mekanismo erabiliz). Sexu-indarkeria dagoenean tratatu txar psikologikoa ere badago.

Halaber, sexu-indarkeriak honako adierazpen hauek izan ditzake:

- *Sexu-erasoak*: indarkeria edo larderia erabiliz beste pertsona baten sexu-askatasunari erasotzen dion edozein jokaera da, indarkeria indar fisikoaren edo larderiaren erabilera dela ulertuz, esaterako, biktimak edo bere hurbilekoren batek berehalakoa eta larria den gaitz bat sufritzeko beldurra edo mehatxua eragiten duten jokaera psikologikoak. Sexu-erasoaren adierazpenik ohikoena bortxaketa da. Bortxaketak baginatik, uzkitik zein ahotik kopulatzean edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak edo gorputz-atalak sartzean datza. (*Zigor Kodearen VIII. Tituluaren 178-180 artikuluetan tipifikatuak*).
- *Sexu-abusuak*: larderiarik eta indarkeriarik gabe egiten dira. Barne hartzen dira borondate- edo adimen-gaitasuna mugatuta izateagatik, baliozko ezaguerarik ezin utz dezaketen emakumeen gainean egindako abusuak.
- *Sexu-jazarpena*: irakaskuntza- edo lan-harreman baten edo antzekoren baten testuinguruan gertatzen diren eta nahi gabekoak diren ahozko, ez-ahozko edo sexu-izaerako portaerak. Horien helburua edo ondorioa emakumearen duintasunari erasotzea eta/edo larderiazko ingurune apalgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea da.

Indarkeria sexistaren forma desberdin horiek harreman-mota desberdinetan gerta daitezke. Indarkeria darabilen **harremanaren testuingurua** bereizteko ondorengo definizioa erabiliko da:

- ✓ **Genero-indarkeria**: 2004ko abenduaren 29an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Genero indarkeriaren aurkako babes integralaren neurriei buruzko Lege Organikoaren definizioa aipatzen denean: “genero-indarkeriak indarkeria fisikoa eta psikologikoa batzen ditu, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasun gabezia arbitrarioak barne. Erasotzaileak senarrak, senarrak izandakoak, edo bestelako harreman afektiboko bikotekideak izaten dira, nahiz eta elkarrekin bizi ez”.



## II) SEXU-ERASO ETA/EDO GENERO-INDARKERIA KASUETAN EMAN BEHARREKO ARRETA KOORDINATZEKO PROZEDURAK

*Lehentasunaren* printzipioa kontuan hartuta, **larrialdietako arretaren** eta **lehentasunezko arretaren** irizpideak kontuan hartuta egingo da arreta emateko prozedura.

### II.1.- GENERO-INDARKERIA kasuetan larrialdietako eta lehentasunezko arreta emateko prozedurak

**Urgentziako egoerak:** urgentziako egoeratzat joko dira *lehenbailehen erabaki bat hartzea* eskatzen duten egoerak:

- a) Emakumeak ageriko lesioak ditu (*bikotekidearen edo bikotekide ohiaren tratu txarren ondoriozkoak direla aitortu zein ez*).
  - b) Emakumeak salaketa bat aurkeztu du Ertzaintzan/Udaltzaingoa.
  - c) Emakumeak etxetik ateratzeko erabakia adierazi dio zerbitzuari.
  - d) Ez du arriskua antzematen, baina arreta eman dion teknikariak arrisku-adierazleak antzeman ditu, berehala edo etxera itzultzean topa dezakeen larrialdi-egoera planteatzera eraman dutenak.
- Larrialdietako egoerak gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, Ertzaintzak edo Udaltzaingok artatu ditzakete lehenengo instantzian. Zerbitzu horietako baten lehenengo esku-hartzeak jarduketa eta esku-hartze berriak eragin ditzake (epaiketa, egonaldi luze zein ertaineko harrera eskatzea, zerbitzu espezializatuak eskatzea, laguntza ekonomikoak izapidetzea, eta abar). Kasu horietan *esku-hartzeak* jarraipen bat daukala ulertuko da, nahiz eta dagoeneko ez den beharrezkoa berehalako erabakiak hartzea.
  - Kasu guztietan, emakumea beste zerbitzuren baten ohiko erabiltzailea ote den egiaztatu ondoren, lehenengo instantzian arreta eman dioten langileen lana izango da emakumeari arreta ematen dioten profesional desberdinen arteko ekintza koordinatuaren garrantziaren berri ematea emakumeari. Horrenbestez, idatzizko baimena eskatuko zaio gainerako erakundeei bere egoeraren eta hartutako neurrien berri emateko.
  - Emakumeak ekintza koordinatua burutzeko baimena ematen badu, lehenengo instantzian arreta eman dion zerbitzua gainerako zerbitzuekin harremanetan jarriko da, aurretiko jardueri buruzko informazioa biltzeko eta jarduerak koordinatzeko.
  - Emakumeak ez badu ekintza koordinatua burutzeko baimenik ematen, kontuan izan behar dugu emakumeak urgentziako babes-neurriak (abegi-etxea eta/edo salaketa) baztertu egin

ditzakeela, batetik, ez datorrelako bat arrisku-balorazioarekin, eta, bestetik, uste duelako egoerari aurre egin diezaikeela. Kasu horretan, teknikaria emakumearen segurtasuna ahal bezain beste bermatzen saiatuko da, eta honela jokatu du:

- **Babes-neurriak eta segurtasun-plana eskainiko dizkio.**
- **Ofiziotik atestatua egingo du.**
- **Kasuaren jarraipena egingo du.**
- Emakumeak hasiera batean aukeratutako zerbitzuak egingo dio beti prozesuan lagun egiteko eskaintza, eta emakumeak berak erabaki beharko du onartu ala ez.
- Biktimak babes-maila altuagoa behar badu, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren artean adostutako esku-hartze akordioaren arabera jokatu da. Ertzaintzak BFaren abegi-etxera lagunduko du emakumea.

**Lehentasunezko egoerak:** berehalako erabakirik hartzea eskatzen ez duten kasuak lehentasunezko egoeratzat hartuko dira. Kasu hauetan gerta daiteke hori: emakumeak ez badu hasieratik salaketarik jarri nahi eta erabakia hartzeko denbora behar badu; eraso ez bada berriki jazotakoa; erasotzen duen bikotekidearekin duen harremana etetea edo banantzea ekar dezakeen edozein erabaki hartu aurretik, emakumeak zerbitzu espezifikoaren laguntza jarraitua behar badu; edo langileei ohiko esku-hartze prozesu bat behar dela ondorioztatzeko oinarria ematen dien egoeraren batean badago.

Kasu guztietan, emakumeari lehenengo instantzian arreta ematen dion teknikariaren eginkizuna izango da emakumeari jakinaraztea Prozedura Kriminalaren Legeari jarraiki (259.<sup>1</sup> eta 262.<sup>2</sup> artikulua) gertatutakoaren berri emango diola Fiskaltzari, Auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari edo, ageriko delitua baldin bada, hurbilen dagoen polizia-funtzionarioari. Hala, gainerako erakundeei emakumearen egoeraren eta ondoriozko esku-hartzeen berri emate aldera.

---

<sup>1</sup> Prozedura Kriminalaren Legea. **259. artikulua.** “Edozein delitu publikoren egitea ikusten duenak berehalakoan horren berri eman beharko dio instrukzio-epaile, bake-epaile, eskualdeko epaile edo udal-epaileari, edo, bera zein tokitan izan eta toki horietatik hurbilen dagoen funtzionario fiskalari; bestela, 25 pezetatik 250 pezetarainoko isuna ezar dakioko”.

<sup>2</sup> Prozedura Kriminalaren Legea. **262. artikulua.** “Norbaitezuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute berehala horren salaketa egin beharko diote Fiskaltzari, auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari, eta, halakoa izan ezean, tokitik hurbilen dagoen udaltzainari edo poliziako funtzionarioari, baldin eta ageri-ageriko delitua bada. Betebehar hori betetzen ez dutenei 259. artikuluan aipatutako isuna ezarriko zaie diziplina bidez. Parterik eman ez duena medikuntza, kirurgia edo farmaziako irakaslea bada eta parte horrek beraren lan-jarduerekin zerikusia badu, orduan isuna ezin izango da izan 125 pezeta baino gutxiagokoa, ezta 250 pezeta baino gehiagokoa ere. Parte hori eman ez duena enplegatu publikoa bada, aurrekoaz gain, horren berri emango zaio zuzenean gorago dagoenari, administrazio-arloan gerta daitezkeen ondoretarako. Artikulu honetan xedatutakoa ulertuko da, ez-emate horrek legeen arabera erantzukizuna sortzen ez duenerako”.

Kasu horietan, esku-hartzean zehar *larrialdietako esku-hartzea* eskatzen duten egoerak jazo daitezke.

#### **Esku-hartze prozesuaren amaiera:**

Genero indarkeriaren ezaugarriak kontuan izanda, esku-hartzeek urgentziako egoerei eta lehentasunezko egoerei erantzun beharko diete, bai eta biktimak etengabeko laguntza eskatzeari edo zerbitzuak utzi nahi izateari ere. Hori dela eta, esku-hartze prozesuak desberdinak izan daitezke, zehatzak zein epe luzeoak.

Esku-hartze bakoitzean, emakumeari berarentzako eta bere menpekoentzako (bereziki seme-alabentzako) baliabideei buruzko informazioa emango zaio. Informazio hori idatziz emango da eta emakumeak jaso duela erregistratuko da, kasuaren jarraipena hobea izan dadin.

Nolanahi ere, kasuen jarraipena egitea gizarte-zerbitzuen ardura da, emakumea ohiko erabiltzailea baldin bada edo zerbitzu hori eskatu badu; gizarte-zerbitzuetara jo ez badu, ordea, Ertzaintzak izango du ardura hori.

#### **Jarraipena honako arrazoi hauengatik eten daiteke:**


- biktimak hala eskatu duelako ahoz zein isilbidez: indarkeria-zikloa hautsi delako, bikote-harremana bukatu delako, bestelako laguntza-sarea daukalako, beste leku batean bizi delako edo beste edozein egoera dela-eta.
- jarraipenaren arduraduna den erakundearen jarduera-protokoloak hala agintzen duelako.

## **II.2. GERTATU BERRI DIREN ETA GERTATU BERRIAK EZ DIREN SEXU-ERASOEI arreta emateko prozedurak**

**Gertatu berri diren sexu-erasoak:** Sexu-erasoa gertatu denetik biktimek laguntza eske zerbitzu batera jo duten arte edo beste norbaitek eraman dituen arte 72 ordu baino gutxiago igaro badira, urgentziako egoeratzat hartuko da. 72 orduko epea malgua da; batez ere froga fisikoak berreskuratu ahal izateko zehazten da.

Biktimak larrialdietako osasun-zerbitzuetara jotzen badu, dagokion protokoloari jarraituko zaio.

## ESKU-HARTZEKO OSASUN-PROTOKOLOA



Gertatu berri den sexu-eraso baten biktimak gizarte-zerbitzuetara, Ertzaintzaren polizia-etxera edo Udaltzaingoaren polizia-etxera jotzen bada, zerbitzu bakoitzak dagokion protokoloa aktibatuko du.


- Sexu-erasoa edo -abusua gertatu berria bada, Guruzetako Ospitaleko larrialdietako zerbitzura bidaliko da biktima. Ahal den neurrian, bereizgarri gabeko ibilgailu ofizial batean eramango da biktima. Biktimari esango zaio ez garbitzeko, arropak ez aldatzeko eta, aho bidezko eraso gertatu bada, ez jateko eta ez edateko.
- Polizia-taldeak mediku forentsearen presentzia eskatu dela egiaztatuko du, mediku-azterketa egin eta laginak jaso daitezten. Halaber, gertakariei buruz eskura dauden datu guztien berri emango zaio forentseari.
- Baliabide horri alde aurretik jakinaraziko zaio (telefono bidezko abisua) sexu-erasoen edo genero-indarkeriaren biktima bat eramango dutela; emakumeari dauden baliabideen eta zerbitzuen berri emango zaio, eta ospitalean utziko dute arreta eman diezaioten.
- Biktimari ez zaio aitortzen eskatuko pertsonal sanitarioak biktima aztertzen ez duen arte eta bere behar pertsonalak estaltzen ez diren arte. Biktima ospitaleratzen baldin badute, lehenbailehen hartuko zaio aitortpena osasun-esparruaren barruan.
- Kasu guztietan, emakumeari lehenengo instantzian arreta ematen dion teknikariaren eginkizuna izango da emakumeari jakinaraztea Prozedura Kriminalaren Legeari jarraiki (259. eta 262. artikulua) gertatutakoaren berri emango zaiola Fiskaltzari, Auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari edo, ageriko delitua baldin bada, hurbilen dagoen polizia-funtzionarioari. Hala, gainerako erakundeei emakumearen egoeraren eta ondoriozko esku-hartzeen berri emate aldera.
- Erabiltzaileari dagokion lesioen partearen kopia eskatzeko esango zaio, salaketa egiterako unean aurkeztu ahal izateko.
- Biktima informazioa jasotzeko moduan baldin badago, lehenengo instantzian arreta eman dioten langileen lana izango da emakumea artatzen duten profesional desberdinen arteko ekintza koordinatuaren garrantzia nabarmentzea. Horrenbestez, idatzizko baimena eskatuko zaio gainerako erakundeei bere egoeraren eta hartutako neurrien berri emateko.
- Emakumeak ekintza koordinatu hori egiteko baimenik ematen ez badu, lehenengo instantzian arreta eman dion zerbitzuak jarraituko du kasuarekin, eta biktimaren egoerara ondoen egokitzen diren baliabideak eskainiko dizkio. Esku-hartzearen garapenean zehar, emakumeari beste erakundearen esku-hartzea gomenda diezaioke, beste laguntza batzuk lortu ahal izateko eta emakumeari bere egoeratik irteten lagunduko dion baliabide-sarea zabaltzeko.

- Emakumea adingabea baldin bada, senideak edo tutore legalak jakinaren gainean jarriko dira bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua (sexu-erasoen eta tratu txarren kasuetan arreta psikologikoa emateko programa) ere, emakumeak kasuaren arabera orientazioa jaso dezan.

**Gertatu berriak ez diren sexu-erasoak:** Sexu-erasoa gertatu denetik dagoeneko froga fisikoak jasotzeko epea igaro bada (erasoa gertatu denetik 72 ordu baino gehiago) eta beste tratamendu baten barruan detektatu baldin badira (ordura arte estalita egon den trauma azaleratu delako edota emakumeak gertatutakoa kontatzea erabaki duelako), dagokion zerbitzuak emango dio arreta, eta beharrezkoa bada eta emakumeak baimena ematen badu, zerbitzu espezializatuetara bideratuko da emakumea.

- Nagusiki honako erakunde hauek artatu ditzakete gertatu berriak ez diren sexu-erasoak: Leioako osasun-zentroa eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- Kasu guztietan, biktima informazioa jasotzeko moduan baldin badago, lehenengo instantzian arreta eman dioten langileen lana izango da emakumea artatzen duten profesional desberdinen arteko ekintza koordinatuaren garrantzia nabarmentzea. Horrenbestez, idatzizko baimena eskatuko zaio gainerako erakundeei bere egoeraren eta hartutako neurrien berri emateko.
- Emakumeak ekintza koordinatua egiteko baimena ematen badu, lehenengo instantzian arreta eman dion zerbitzua gainerako zerbitzuekin harremanetan jarriko da, aurretiko jardueri buruzko informazioa biltzeko eta jarduerak koordinatzeko.
- **Emakumeak ekintza koordinatu hori egiteko baimenik ematen ez badu, lehenengo instantzian arreta eman dion zerbitzuak jarraituko du kasuarekin,** eta biktimaren egoerara ondoen egokitzen diren baliabideak eskainiko zaizkio. Esku-hartzearen garapenean zehar, emakumeari beste erakundeen esku-hartzea gomenda diezaioke, beste laguntza batzuk lortu ahal izateko eta emakumeari bere egoeratik irteten lagunduko dion baliabide-sarea zabaltzeko.

**GERTATU BERRIAK EZ DIREN SEXU ERASOEN AURREAN  
ESKU-HARTZEKO OSASUN-PROKOLOA**



### II.3. BESTE BALIABIDEEKIN GIZARTE ZERBITZUEN arreta emateko prozedurak

Hona hemen erakundeen arteko koordinazio-prozesuan gizarte-zerbitzuen esku-hartzea, indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko:

#### UDALTZAINGOAREKIN ETA ERTZAINZAREKIN

*Polizia-koordinaziorako protokoloak* arautzen du Udaltzaingoaren esku-hartzea eta Ertzaintzarekin daukan koordinazioa. Ertzaintzak genero-indarkeriaren protokolo propioa dauka, bai eta datuak partekatzeko emakume salatzaillearen adostasuna jasotzeko agiri propioak ere.

Leioako gizarte-zerbitzuek Erandioko Ertzaintzako erreferentziatzko pertsonen kontaktua daukate (telefono-zenbakia, fax-zenbakia, helbide elektronikoa). Halaber, koordinazio arina daukate udalerriko Udaltzaingoarekin. Udaltzaingoak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko lanak burutzen ditu eta, Ertzaintzak bezala, salaketak jasotzen ditu.

Hona hemen Leioako udalerritik Ertzaintzarekin batera gaur egun egiten diren ekintzak: genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak babestea, arau-hausteei buruzko txostenak egitea eta Leioako Udaltzaingoan genero-indarkeriaren kasuak kudeatzea.

- Genero-indarkeria kasuak Leioako Udaltzaingoan: biktimaren batek salaketa bat jartzen duenean Leioako Udaltzaingoaren bulegoan, hurrengo 48 orduetan, guardiako epaitegiari diligentiak igortzeaz gain, alor horretan eskumenak dituen Ertzaintzaren sailari eta Leioako Gizarte Zerbitzuei kopia bana bidaltzen zaie.
- Gizarte Zerbitzuen eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa: harremanetan jarri GI kasuen (Ertzaintzak erabiltzen duen terminoa erabiltzen da) jarraipena egiten duen agenteetako batek ahal bezain azkar arreta eman diezaion emakumeari.
- Biktimak babestea: arriskuan dauden emakumeak babesten dira, aldez aurretik Ertzaintzak berak hala sailkatu dituen. Biktima Leioan bizi bada, baina lana dela-eta edo beste edozein egoera dela-eta, beste udalerriri batean egiten baldin badu bizitza, zona horretako polizia-etxeari berezitasunaren berri emango zaio eta biktimak udalerriri horretan jarraitzen duen bitartean beste jarraipen bat egingo da.
- Arau-hausteei buruzko txostena: erasotzaile batek ezarritako agindua nolabait urratzen baldin badu (adibidez: urruntzeko agindua, hizketazko komunikaziorik eza, telefono edo ordenagailu bidezko komunikaziorik eza, eta abar), erreferentziatzko epaitegiari txostena bidaliko zaio,






gaiaren berri emanez. Bi alderdiek urratu badituzte aginduak, horren berri emango zaio epaitegiari, bidezko irizpena eman dezan.

- Udaltzaingoak Ertzaintzaren Erandioko polizia-etxean eman behar du arau-haustearen berri: Epaitegian arau-hausteen berri eman ostean jakinarazten zaizkio arau-hausteak Ertzaintzari. Horrenbestez, gertatzen diren arau-hausteen gaineko atestatuaren kopia ahal bezain azkar bidaltzeko konpromisoa hartzen du Udaltzaingoak.

## OSASUN-ZENTROAREKIN

- Osasun-zerbitzuetan arreta jasotzen duten emakumeen kasuan, eta betiere biktimaren baimen esplizituarekin, sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktimei arreta ematen dien gizarte-zerbitzuetako erreferentziako pertsonarekin jarriko dira harremanetan.
- Emakumeak hasiera batean gizarte-zerbitzuetara jotzen duen kasuetan emakumeak osasun-laguntza behar badu, erreferentziako gizarte-langileak lagunduko du emakumea, beharrezkoa bada.
- Erabiltzaileari dagokion lesioen partearen kopia eskatzeko esango zaio, salaketa egiterako unean aurkeztu ahal izateko.
- Gizarte-zerbitzuetan arreta jasotzen ari den emakumeak babes-neurriak baldin baditu, erreferentziako gizarte-langileak, betiere emakumearen baimen esplizituarekin, egoeraren berri emango die mezu elektronikoko baten bidez eta/edo telefono bidez lehen mailako osasun-zerbitzuei eta pediatriari (biktimak adingabeko seme-alabak baldin baditu) erasotzailearekin topatzea eragozte aldera.
- Emakumeak lehenengo instantzian osasun-zentroan jaso badu arreta eta emakumea ospitalera eraman behar baldin bada, larrialdi bat delako, osasun-zentroak 112 zenbakira deituko du mekanismo guztiak aktibatuzko.
- Pertsonal sanitarioak esku-hartze egokia egin dezan, funtsezkoa da biktimei laguntza emateko baliabideak ezagutzea. Horrenbestez, informazio-materiala (liburuxkak, kartelak...) izatea bermatuko da, eta beharrezkoa izatekotan gizarte-zerbitzuekin batzartzeko eskatuko da, emakume biktimentzako dauden baliabideen gaineko informazioa eguneratzeko.





- Gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten eta babes neurriak dituzten emakumeen kasuetan, biktimak adingabeko seme-alabak baldin baditu, erreferentziazko gizarte-langileak, betiere emakumearen baimen esplizituarekin, ikastetxeari egoeraren berri emateko modurik egokiena koordinatuko du emakumearekin batera, ikastetxeak behar diren neurriak har ditzan.
- Ahalik eta biktimizaziorik txikiena eragiteko printzipioa kontuan hartuta –hau da, erakundeek emakumeei laguntzeko elkarren artean koordinatu behar dutela, eta ez direla emakumeak izan behar erakundeak koordinatuko dituztenak–, esku-hartzea zuzenean egin ahal izango da edo biktimak berak egitea egokia ote den aztertuko da.

Ikastetxe guztiek *“Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida 2011”* agirian jasotako jarraibideak beteko dituzte.

a) Tratu txarrak jasan dituen neska baten kasuan –egungo zein iraganeko harreman baten testuinguruan– edo beste ikasleren baten eskutik sexu-indarkeria jasan duenean.

Bereziki, ikastetxeko zuzendaritzak, edo kasuaren jarraipena egiteko izendatuak izan diren pertsonak, honako pausu hauek emango dituzte:

1. *Informazioa batzea.*
2. *Kasuaren alde aurreko azterketa eta larrialdietako esku-hartzeak.*
3. *Familiei lehenengo aldiz informazioa ematea.*
4. *Informazioa osatzea, egiaztatzea eta aztertzea.*
5. *Berdinen arteko tratu txarren kasu bat den edo ez zehaztea, hezkuntza-ondorioetarako, eskuratutako informazioa kontuan hartuta.*
6. *Hezkuntzako Ikuskatzailezari gertakarien berri ematea.*
7. *Jarduera-plana.*
8. *Jarduera-planean proposatutako neurriak inplikaturako familiei jakinaraztea.*
9. *Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea.*

b) Eskolako nesken batek ikastetxeko langileren baten tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasaten duenaren susmoa. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari horren berri emango zaio, eta hark berehala jakinaraziko dio Hezkuntza Ikusatzailtzari. Hori guztia dagozkion diziplinazko neurriak eta neurri judizialak alde batera utzi gabe.

c) Senitartekoren baten edo ikastetxez kanpoko pertsona baten tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasaten duen neska. Kasu horretan, horren berri emango zaie Gizarte Ekintzari, Fiskaltzari eta Hezkuntza Ikusatzailtzari.


d) Hezkuntza-erkidegoko norbaitek jakiten badu edo susmoa badu ikasle baten ama etxeko tratu txarren edo sexu-indarkeriaren biktima dela, berehala ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio, eta hark, egoera aztertu ondoren delitu-aztarnak ikusten baditu, Gizarte Zerbitzuei, Fiskaltzari eta Hezkuntzako Ikusatzailtzari jakinaraziko die (hori jaso da *sexu-indarkeriaren eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko erakundearen arteko II. Akordioan*).

Aurreko a), b), c) eta d) ataletan adierazitakoari jarraiki, tratu txarrak gertatzen direla zehazten denean, biktimei, edo, behar izanez gero, familiari, jakinaraziko zaie biktima moduan hezkuntza-arloan zer nolako zerbitzuak eta prestazioak dituzten.

#### **UDALEKO, ALDUNDIKO EDO AUTONOMIAKO ZERBITZU ESPEZIFIKOekin**

Laguntza eskatzera jotzeko emakumeen erreferentzia gizarte-zerbitzuak direnez, horien arduraren izango da udaleko, aldundiko eta/edo autonomiako zerbitzu espezifikoen koordinatzea eta emakumea zerbitzu horietara bideratzea (lege-laguntza, laguntza psikologikoa, adingabekoen esku-hartzea, telefono bidezko laguntza eta informazioa, eta Andra emakumeen elkarteak sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen dien laguntza-zerbitzuari buruzko informazioa ematea).

#### **JARDUERA-FLUXUGRAMA:**



### III) TOKIKO PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO OROKORRA

Protokoloa sinatu duten erakundeen arteko koordinazioa hobetze aldera eta protokolo honen edukien egikaritzearen ebaluazioa eta jarraipena egiteko, koordinazio-irudi hau mantenduko da: **Protokoloaren Koordinaziorako Mahai Teknikoa.**

Mahai hori ondokoek osatuko dute: Gizarte-zerbitzuak, Udaltzaingoa, Berdintasun Saila, Osakidetza, Ertzaintza eta Hezkuntza.

Leioako Udaleko Berdintasun Saila arduratuko da Koordinazio Taldea bileretara deitzeaz; halaber, Leioa udalerrian detektatutako sexu-erasoen eta genero-indarkeriaren kasuei buruzko datuak batu eta aurkeztuko ditu, aldeztu aurretik instantzia bakoitzak gizarte-zerbitzuetara bidalitakoak.

Ohiko bilerak urtean **bi** aldiz egingo dira; ez ohikoak, aldiz, mahaikide batek hala eskatzen duen bakoitzean.

Eginkizunak:

- 1) Artatutako kasuetan burututako jarduerak aztertu eta ebaluatzea.
- 2) Bilera batetik bestera emandako arretari buruzko estatistikak egitea, arreta jaso duten biztanleen ezaugarriei buruzko eta udal-politikak hobetzeko erabilgarria izan daitekeen informazioa nabarmenduz.
- 3) Tokiko Protokoloan hobekuntzak proposatzea, biktimei ematen zaien arretaren kalitatea hobetzeko.

#### IV) UDALAREN ADIERAZPENAK ETA EKINTZA PUBLIKOAK

Leioako Udalaren eta bertako agintari eskudunen eginkizuna da emakumearen indarkeriaren aurkako kultura sortzeko jarduera egokiak burutzea eta gure gizarteko egiturazko indarkeria matxistari aurre egitea. Horretarako, udalerriko indarkeria-egoera desberdinei erantzun egokia eta proportzionatua ematen saiatuko da.

Jarraitu beharreko ekintzak:

- **Sexu-askatasunaren aurkako erasoetan edo genero-indarkeriako kasuetan jarraitu beharreko prozedura:**

1/ Genero-indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimei zuzenean babesa emango zaie, kasua ezagutzera eman denean, salaketa egon zein ez. Beharrezko babesa emango da eta agintarien aldetik biktimen eskaerei erantzuteko interesa dagoela jakinaraziko zaie; betiere emakumeen eta familiaren pribatutasuna gordez.

2/ Udalak publikoki gaitzetsiko ditu sexu-erasoen eta/edo genero-indarkeriaren kasuak. Horien aurkako ekitaldietara edo babesa emateko ekitaldietara deituko ditu udalerriko herritarrak, betiere emakumeen eta familien pribatutasuna errespetatuz. Udalerriko indarkeria matxistaren kasuak gaitzesteko deialdia emakumeen elkarteek edo besteren batek egin badu, udalak deialdiarekin bat egingo du.

3/ Udaleko agintariak indarkeria matxistaren aurkako kontzentrazio publiko bat egingo dute, azaroaren 25eko sentsibilizazio-jardunaldien testuinguruan. Halaber, udalak Leioako ikastetxeetan indarkeria matxistari aurrea hartzeko tailerrak garatuko ditu, prebentzio-ekintza gisa.

- **Genero-indarkeriaren edo sexu-askatasunaren aurkako beste edozein delituren ondoriozko heriotzen kasuan jarraitu beharreko prozedura:**

1/ Leioako alkateak bozeramaileen batzarra deituko du, eta ondoren osoko bilkura, gaitzespena adierazteko erakunde-adierazpena oneste-aldera; halaber, herritarrak deituko ditu egoki irizten dituen ekitaldietan parte hartzera. Deialdia emakumeen elkarteek edo besteren batek egin badu, udalak bat egingo du deialdiarekin.



Udalaren erakunde-adierazpenetan publikoki aitortuko da indarkeria matxistarekin amaitzeko emakumearen borroka pertsonala.

2/ Udala biktimaren familiarekin harremanetan jarriko da beharrezko laguntza eskaintzeko, bereziki, hildakoaren seme-alabei dagokienez. Laguntza hau eskainiko da: laguntza legala; laguntza psikologikoa; laguntza ekonomikoa, beharrekota bada; gorpua aberriratu behar bada, gorpua lekualdatzeko laguntza; gainerako senitartekoei informazioa ematea, bai estatuan bai kanpoan bizi direnei, eta abar.

3/ Udalak herri-akzioa erabiliko du indarkeria matxistaren ondoriozko udalerriko heriotza-kasuetan.

- **Aurreko bi kasuetan:**

Udalak komunikabideekin hitz egin behar duen pertsonaren ardura finkatuko du, informazio zehatza eta egokia ematen dela bereziki zainduz. Hala, komunikabide horien aurrean erantzuteko jarraibide batzuk ezarriko dira, jasotzen edo ematen den informazioa prentsa- eta komunikazio-bulegoan zentralizatu dadin, betiere Berdintasun Sailarekin eta gizarte-zerbitzuekin koordinatuta. Gertatutakoa egiaztatu arte komunikabideen presiopean erantzun inprobisatuak ematea saihestuko da.

Nolanahi ere, Eudelek emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan egin beharreko adierazpen publikoen inguruan egindako gomendioak beteko ditu udalak komunikabideei erantzuterakoan.

## 1. ERANSKINA: II. PROTOKOLOA EGITEKO KONTUAN HARTU DIREN LEGEGINTZA-XEDAPENAK

Eskumenei buruzko lege-esparruan, hauek dira, sexu-indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko koordinazioa hobetzeko helburuei jarraiki, EAEko botere publikoen jarduera zehazten duten legegintza-kidego nagusiak:

### Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean:

- ❑ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- ❑ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.
- ❑ 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua erregulatzen duena.
- ❑ 35/95 Legea, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza eta arreta emateari buruzkoa.

### Adingabeak babesteko alorrean:

- ❑ 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateari buruzkoa.

### Eskumen-banaketaren alorrean:

- ❑ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- ❑ 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- ❑ 5/1996 Legea, urriaren 18koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- ❑ 155/2001 Dekretua, uztailaren 30eko, Gizarte Zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituena.
- ❑ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa, 19. artikulua, 7. puntua, berdintasun-erakundeen eskumenen alorrei buruzkoa.

### Datuak babesteko alorrean:

- ❑ 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak babesteari buruzkoa.

## 2. ERANSKINA: BALIABIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Leioa udalerria
<ul style="list-style-type: none"><li>• Leioako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak - 94 4801336 - Inaurratzaga, 1 (Leioa)</li><li>• Leioako arreta psikologikoa eta juridikoa emateko zerbitzua - 94 4801336</li><li>• Andrak elkarte - 668 805 766</li><li>• Leioako Udaltzaingoa - 94 400 8021</li><li>• Leioako osasun-zentroa - 94 6007001</li><li>• Leioako bake-epaitegia - 94 4637522 / 94 4637951</li></ul>

- **Larrialdietako zerbitzua 112 (Ertzaintza)**

Garrantzitsua da emakumeei jakinaraztea 112 zenbakia mota guztietako larrialdiei erantzuteko zerbitzua dela eta ez dela informazioa eskatzeko zerbitzu bat; beraz, arriskuan daudenean aktibatu dezakete. Halaber, 1 zenbakia telefono mugikorreko markatze azkarrean jartzeko gomenda daiteke. Ahoz komunikatzeko zailtasunak dituztenek SMS mezu bat bidal dezakete 600123112 zenbakira, beren datu pertsonalak, kokalekua adieraziz eta *Genero Indarkeria* idatziz.

- **24 orduko telefono bidezko arreta zerbitzua (SATEVI): 112/ 900 840 111**

Estaldura autonomikoa duen doaneko zerbitzua da. Urteko egun guztietan eta 24 orduz dago erabilgarri. Horrez gain, zerbitzu horrek aholkularitza eta informazioa eskaintzen die profesionali, senitartekoei edo ahaideei, edozein zalantza edo kontu argitzeko.

Aldibereko interpretazio-zerbitzua eskaintzen du hainbat hizkuntzetan eta entzuteko desgaitasuna dutenentzako irisgarria da. Eremu segurua dela ere nabarmendu behar da, deia ez baita telefonoaren fakturan agertzen.

- **Biktimari arreta emateko zerbitzua / 900 400 028 (doan) Justizia Jauregia - Ibañez de Bilbao, 3-5 (Bilbo)**

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak biktimen esku jartzen dituen legelariez, gizarte-langileez eta psikologoez eratutako diziiplina anitzeko taldeek osatzen dute.

Justizia Sailaren eta Herri Administrazioaren esku dago, eta doako zerbitzua da, hala nahi izanez gero eskura daitekeena.

- **Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko 1. eta 2. Epaitegiak, 94 4016502/ 94 4016520 - Buenos Aires kalea, 6, 4. solairua- Bilbo**
- **Lehen Auzialdiko Epaitegia - Barroeta Aldamar kalea, 10, Bilbo - 94 4016672**
- **Fiskaltza (Getxo) 94 6023966**
- **Fiskaltza (familia eta adingabeak), Bilbo 944016659**

### 3. ERANSKINA: INFORMAZIOA PARTEKATZEKO ADOSTASUN-AKTA

Nik, \_\_\_\_\_ andreak/jaunak,

NAN / Pasaportea / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria:

\_\_\_\_\_

akta honen bidez,

honako hau jakinarazten dut:

- aurkeztutako datu pertsonalak, argazkiak eta/edo bideoak polizia-kidego desberdinen esku jarri ahal izango dira, hala behar izanez gero, eskusiboki polizia-esparruaren barruan erabiliak izan daitezzen eta ezar daitezkeen babes-neurriak burutu ahal izateko.

Eta baimena ematen dut:

- beharrezko informazioa honako hauen esku jartzeko:

gizarte-langilea

familia-medikua

pediatra

eskolako zuzendaria

\_\_\_\_\_

Eguna:

Sinadura:

**4. ERANSKINA:**

**ERTZAINZA**

**IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMEN- ETA INFORMAZIO-AKTA**

El/GI espedientea: \_\_\_\_\_

Nik, \_\_\_\_\_ andreak/jaunak,

NANA / Pasaporte / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria:

\_\_\_\_\_

izaera pertsonaleko datuen babesari dagokion arloan indarrean dagoen legeriak babesten dituen datuak lagatzeko kasuei eta aurreikuspenei kalterik egin gabe, akta honen bidez:

1. jakinarazten dut espediente honi loturiko informazioa eta datu pertsonalak:

- polizia-kidego desberdinen esku jarri ahal izango direla, hala behar izanez gero, eskusiboki polizia-esparruaren barruan erabil daitezkeen eta ezar daitezkeen babes-neurriak burutu ahal izateko.

2. Halaber, pertsona horrek baimena ematen du beharrezko informazioa eta datuak

- genero-indarkeriaren emakume biktimei telefono bidezko arreta zerbitzuaren (SATEVI) eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren esku jartzeko ( gogobetetasun-inkestak egin ahal izango dira, biktimei aitortutako eskubideen betearazpen egokiaren jarraipenari erantzuna emateko), bai eta gizarte-laguntzaren eta -babesaren esparruko lana garatzeko informazioa eskatzen duten erakundeen esku jartzeko ere; hori guztia, genero-indarkeriaren biktimentzako arretaren kudeaketa integralari erantzun eraginkorra emateko.

Bai  Ez

(dagokiona markatu)

Eguna:

Sinadura:

## 5. ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUAK JASOTZEKO BAIMENA EMATEA

Nik, ..... andreak

NANA / Pasaportea / Egoitza-baimena / Bestelako identifikazio-agiria:.....

AKTA honen bidez, honako hau beren-beregi idatziz jasota uzten dut:

.....(e)ko Udaleko langileek jakinarazi didate

emandako datu pertsonalak..... TOKIKO PROTOKOLOA izeneko fitxategi batean sartuko direla,  
.....(e)ko Udalaren/Mankomunitatearen titulartasuneko dena. Horren helburua da niri eta nire mende dauden pertsonen ahalik eta arretarik osoena eskaintzea jarduketan existitzen diren zerbitzuekin koordinatuz.

Era berean, hau ez azaldu didate:

informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiteko laguntza eskainiko duela, eta aldi berean estatistikak eta azterlanak egiteko erabili ahal izango dela.

baimen hau ez emateko eskubide osoa edo partziala dudala.

ez-emate horrek izan ditzakeen ondorioak.

.....(e)ko Udalean datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horren aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala.

Horrekin guztiarekin bat etorritz, askatasun osoz nire baimena ematen dut Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritz.

Eguna:

Sinadura:

Nire alabak 14 urte baino gutxiago ditu, eta ama, aita edo tutorea naizen aldetik, datuak emateko nire baimena ematen dut.